

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

117/2020 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, onesten duena Euskara Kontseiluko kideak izendatzea

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 24ko 104/2000 Foru Dekretuaren bidez, Euskararen Batzordea sortu zen, Kultura Sailaren aholkularitza eta kontsulta organo gisa, eta haren osaera, egitura eta egitekoak arautzen dituen xedapenak onetsi ziren.

Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 21eko 2/2020 Foru Dekretuaren bidez, 104/2000 Foru Dekretuaren 3. artikulua, Euskararen Batzordearen osaerari buruzkoa, aldatu zen, besteak beste. Hortaz, artikulua horri jarraituz, Batzorde horretako kideak eguneratu beharra dago orain.

Aipatutako 3. artikulua horretako 2. apartatuan xedatzen da Euskararen Batzordeko kide izango direla Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kirol eta Berdintasun zerbitzuen 3 ordezkari eta Arabako hizkuntza normalizazioaren prozesuan eragina duten eta euskara sustatzeko planean jasotzen dauden esparru sektorialetako erakundeak edo pertsonak.

Urriaren 24ko 104/2000 Foru Dekretuaren 3.3 artikulua xedatzen du Arabako Lurralde Historikoan euskara sustatzeko eginkizunak dituen saileko titularrak izendatuko dituela Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kirol eta Berdintasun zerbitzuen ordezkari izan jardungo duten kideak eta Euskararen Batzordean parte hartuko duten erakundeak. Era berean, urriaren 24ko 104/2000 Foru Dekretuaren 3.4 artikuluari jarraituz, Euskararen Foru Zerbitzuak 4 pertsona izendatuko ditu hainbat sektoreen ordezkari izan jarduteko.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Honako pertsona hauek kide izendatzea Euskara, Kirol eta Berdintasun zerbitzuen ordezkari izan jarduteko:

- Euskara Zerbitzua: Mikel Etxebarria Arana, titular, eta Sofía Torquemada Alonso, ordezko.
- Kirol Zerbitzua: Juan Ignacio Errasti Jauregi, titular, eta Gerardo Escarza Guridi, ordezko.
- Berdintasun Zerbitzua: Arantza Cañamares Aguilar, titular, eta Laura Ortiz de Urbina Alonso, ordezko.

Bigarrena. Honako erakunde hauek Euskararen Batzordearen partaide izendatzea:

- ARABAKO OSI
- GASTEIZKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA
- ARABAKO HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
- ARABAKO FORU ALDUNDIA - GAZTERIA FORU INSTITUTUA
- ARABAKO IKA EUSKALTEGIA
- ARABAKO AEK EUSKALTEGIA
- LANEKI ELKARTEA
- AIARALDEA EUSKARAREN KONTSEILUA

- ARABAKO BERRITZEGUNEAK
- ALEA HEDABIDEA
- BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA ELKARTEA
- DENON ESKOLA ELKARTEA
- GEU GASTEIZ EUSKALDUNA ELKARTEA
- LAZARRAGA KULTUR ELKARTEA
- ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA
- ARABAKO IKASTOLEN ELKARTEA
- ARABAKO KIROL FEDERAZIOEN FEDERAZIOA

Hirugarrena. Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamenez, honako pertsona hauek izango dira Euskararen Batzordearen partaide:

- Gidor Bilbao Telletxea
- Roberto González de Viñaspre Gonzalo
- Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba
- Rodrigo Agerri Gascón

Laugarrena. Foru dekretu honek onesten den egunean bertan izango ditu ondorioak, ALHAOn noiz argitaratu gorabehera.

Vitoria–Gasteiz, 2020ko martxoaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria

LEXURI UGARTE ARETXAGA